

LAN BATZORDE IREKIAK			
TALDEA	KOMUNIKAZIOA ETA GARAPENA		
IRAUPENA	1'30	EGUNA	2020-02-14
GAIA		DEIALDIA	
PARTE HARTZAILEAK			
Irati Aldazabal	Esti Alberdi		
Ainhoa Arratibel	Eresti Oiarbide		
Jokin Matxinandiarena	Leire Murua		
Ibon Elgarresta	Alex Areizaga		
ERABAKIAK			
GAIA	EKINTZAK	ARDURADURA	NOIZKO
SARE SOZIALAK eta WEBGUNEAK	<ul style="list-style-type: none"> - You Tubeko kanalaren proposamena. Ekitaldi publikoak direnak, publiko izateagatik jar daitezke. Pribatua bada, eskolako emanaldiak...ez. Udaletxearen kanal bat sortuko da eta webgunearekin bateratu. Talex hasiko da dauzkanekin kanala sortu eta bideoak igotzen. Behin hori eginda, jendeari zabalduko zaio eta, bide batez, bideo zaharrak, etxean eduki ditzaketena biltzeko eta horiek elkarbanatzera aprobetxatuko da. Norbaitek kentzeko eskatuko balu, orduan kenduko litzateke (baina ez legoke arazo legalik). Edozein formatutan jaso daitezke bideoak, digitalizatzeko zein formatuz aldatzeko aukera izango bailuke. 		
	<ul style="list-style-type: none"> - Baserrien koordenadekin amaitu zuen Endikak. Falta zaigu bere dokumentua jaso eta webgunean txertatzea. Badago modurik hori anbulantzietara...bidaltzeko? Googlen horiek gordetzeko modurik balego... Errazagoa da mapsen bertan zuzenean. Endikak daukan horren arabera ikusi zer egin. Googleri galdetu, agian denak bidalita eurek egingo dute. 	Anbulantzien kontua Andreari galdetu (LEIRE)	
	<ul style="list-style-type: none"> - Jasoneri galdetu berriro ea baimena idatziz jaso behar den euren baserria webgunean agertzeko. Zalantza eginda dagoen edo ez. Hala balitz, berriz galdetu. 	Mapsenarekin enetratu (MATXIN)	ERESTI
	<ul style="list-style-type: none"> - Elkartu ginen webguneari buruzko bilerarako. Oso jende gutxi, 4 lagun. Hurrengo deialdia whatsappez eta asistentzia konfirmatuz, helburu berarekin eta, bide batez, webgunea nola erabili azaltzeko aprobetxatuko da. Halakorik egin nahiko ez balute, hileroko ekintza horien berri eman dezaten gogorarazteko korreo bat bidaliko zaie elkarteetan izendatutako arduradunei. Deialdia zabaldu Guraso Elkartekoei eta Txindata Musika Eskolakoiei. Adinekoen topagunekoa udalekoek igoko dute. 		AINHOA
	<ul style="list-style-type: none"> - Facebook, twitter eta instagrameko kontuak martxan jarri dira eta erabiltzen dira. Erabilgarri dira, gazteengana heltzeko instagrama, batez ere. Twiterrak aktualitatea lantzen du gehienbat, ez dugu oso erabilgarri ikusten (herrian egindakoak eta egingo direnak publikatzen 		AINHOA

	<p>ditugulako, ez eguneroko berriak). Kontu hori itxita ere, gainerakoekin nahikoa da. Balorazioa positiboa izan da.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bando bat banatu zen bandoak e-mailez jasotzeko eta whatsapp taldean sartu nahi zutenen berri izateko. Jaso dira batzuk. Urtero gauza bera egiten jarraituko dugu. 		
GAZTEEKIN ETORKIZUNA	<ul style="list-style-type: none"> - Aurtengo gosarizketetako erantzunak falta zaizkigu. Endikari eskatu zitzaizkion, baina ez dauzka. Irene eta Iratxe aritu ziren prestaketan; eurei galdetu. 	AINHOA	
DOKUMENTAZIO ZENTROA SORTU	<ul style="list-style-type: none"> - You Tubeko kanala hor legoke, batetik, baita webgunea ere. - Xenpelar Dokumentazio Zentroan galdetuko du Estik ea baimenena nola kudeatzen duten. Horrez gain, segurtasun kopien kontua nola egiten duten ere galdetuko du. Hala ere, udalak youtubera igo aurretik nonbait eduki beharko dituenenez bideo eta dokumentu horiek, udaletxean dagoen disko externoa erabil daite eta, bide batez, segurtasun kopia bat ere egongo litzateke bertan. - Antolatzen diren hitzaldi eta abarretako bideoak grabatu/argazkiak atera eta Udalean gorde. Kameraren ondoan dagoen disko externoan. Udaberri kulturalerako kontuan izan. - Osinaldeko urteurreneko argazkiak Estik pasatu dizkigu gordetzeko 	ESTI	
AGENDA 21	<ul style="list-style-type: none"> - Goiekiren aurrekontua eta planteamentua aztertuta, inbertsioa den arren, lan hau, oraingoz, gure gain hartzea erabaki da. Horretarako, elkarteetan eta batzordeetan lanketa bat egitea proposatu da, lehen diagnosi saio irekia egin aurretik. Horiek bideratzeko, gidoi bat idatziko da. Hori egiteko elkartuko gara, baina aurretik elkarteetan zerrenda zein dagoen taula begiratzea bakoitzaren lana izango da. Bi zerrenda horiek batzordean parte hartu dutenei zabalduko zaizkie; taula dagoeneko elkarbanatu da eurekin. 	DENOK Zerrendak egin eta zabaldu (ERESTI ETA AINHOA)	
GABIRIKO BERRI WHATSAPP TALDEA	<ul style="list-style-type: none"> - Oraingoz irizpideak errespetatzen direla ikusi da (taldea ez zela iritziak emateko esan zenetik), hortaz, ez daude horiek zehaztu eta zabaldu beharrik. Hala ere, elkartzen garenero izango dugu kontuan, beharrik balego, horiei erantzuteko. 		
	<p>HURRENGO BILERA: OTSAILAREN 28an 18:00etan</p>		